

# Hezkuntza **plazara!**

---

## **Abenduaren 1erako ekimen sorta**

Eskolako lan baldintzak ezagutzera emateko

- **Klase bat kalean emango dugu.** Mahaiak eta aulkiak plazara aterako ditugu. Izan ere, leihoak irekita, hotz berdina egiten du barruan eta kanpoan.
- **Klonak.** Irakasle bakoitzaren klon bat egingo dugu denon artean kartulinaz. Irakaslearen tamaina berdinekoa. Irakasle guztiei argazki erretratuak egingo dizkiegu bakoitza bere klonarekin. Erretratu horiek gurasoen whatsapp taldeetan zabalduko ditugu (ikasgela bakoitzari berea), ratioen arazoa azaltzen duten testu laburrekin: "Jasoneren ikasgelan 27 ikasle gara. Ikasle guztiok arreta ona jasotzen dugula bermatzeko Jasonek klon bat beharko luke. Jasone klonatzea zaila bada, kontratatu ditzatela irakasle gehiago!"
- **Ikasgelako aforoa.** Plazako lurrean gure eskolako ikasgela baten tamainako laukizuzena egingo dugu, klarionaz edo karrozero zintaz. Iskina batean gelaren izena eta pandemiagatik eduki beharko lukeen aforoa idatziko dugu (San Francisco eskolako LHko 6.B ikasgela. Aforoa: 12 ikasle + 1 irakasle). Laukizuzenaren barruan aforoak markatzen duen aulki kopurua jarriko dugu. Aulkien jolasa egingo dugu ikasgela horretako ikasle kopuru adina partaiderekin, zenbat ikasle kanpoan geratuko liratekeen salatzeke.

- **Patio mugatuak.** Plazako lurra laukizuzen ezberdinetan banatuko dugu, klarionez edo karrozero zintaz, gure eskolako patioa bezala. Eskolako umeak laukizuzen horietan sartuko ditugu eta arri-orri-ar jolasa modu aspergarrian antzeztuko dugu 10 minutuz.
- **Sardina jana** antolatuko dugu herriko plazan, ratioen jeitsiera eta espazioen egokitzapena aldarrikatzeko. Sardinak egiteko txokoaren ondoan informazio panela jarriko dugu "Sardinak latetan bezala gaude. Ratioak jeitsi!".
- **Tupperrada herritarra** plazan, jangelaren egoera salatzeko. Plazan bazkaltzen dugun bitartean, jangeletako langileek haien lan balditzak azalduko dituzte mikrofono batetik.
- **Zigortuta!** Arbela bat plazara aterako dugu eta ume bat sinbolikoki zigortuko dugu: 100 aldiz kopian beharko du "Koronabirusarekin gaixotzen banaiz NIRE ERRUA da!". Argazkiren bat sareratzekotan, mezu honekin egingo dugu: "Ez. Ez da gure ardura. Hezkuntzan eta osasungintzan nahikoa inbertitzen ez dutenena baizik."
- **Ardura norena?** Dardo dianak plazan jarriko ditugu, dianaren erdigunean Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren logoak jarri. Diana bakoitzaren azpian "Ardura norena?" karteltxoak jarriko ditugu.
- **Hotza ikasgelan.** "Hotza dugu" kontzentrazioa egingo dugu plazan. Baina bertan parte hartzeko, etxean ditugun beroki guztiak jantzi beharko ditugu guztiok, haur eta heldu. Bakoitzak 4-5 beroki jantzita, irudia ikusgarria izango da.
- **Olentzerori gutuna.** Gure eskola hobetzeko neurriak eskatuko dizkiogu Olentzerori. Horretarako paper handi bat itsasiko dugu plazako pareta ikusgarri batean eta rotulagailuekin zerrenda osatzen joango gara.
- **Eskolari zerbait falta zaio.** Lau talde osatuko ditugu, ikasle, irakasle, guraso eta langileak nahastuz. Bakoitzak mural bat margotuko du, paper erraldoi banatan. Lau eskola margotuko dituzte, baina laurak ezberdinak izango dira, bakoitzari estamentu bat falta-

ko zaiolako. Horretarako talde bakoitzak bere galderari erantzuteko tarte hartuko du margotzen hasi aurretik: Nolakoa litzateke nire eskola ikaslerik gabe? Nolakoa gurasorik gabe? Eta langilerik gabe? Nolakoa litzateke irakaslerik gabe? Amaieran mural bakoitzaren aurkezpena egin daiteke. Helburua da lan guztien aitortza egitea eta estamentuen arteko harremana estutzea.

## Pandemia nola bizi dugun azaleratzeko

- **Autoerretatuak.** Ikasle, guraso eta langileei autoerretatuak edo marrazkiak egiteko eskatuko diegu, pandemiaren ondorioz nola sentitzen diren adierazteko. Plazan erakusketa antolatuko dugu marrazkiguztiak soka eta pintzekin jarriz.
- **Podcasta.** Nerabeei eskatuko diegu pandemiak zertan eragin dien grabatu dezatela mobilaren bitartez. Biltzen ditugun audio guztiak elkartu eta podcasta whatsapppe zabalduko dugu. Irrati libreren bat gertu izanez gero, haien programaren batean emititzea eska diezaiekegu.
- **Erreportariak.** Pandemiak gure herrian zer aldaketa eragin dituen jasotzeko eskatuko diegu nerabeei. Horretarako taberna, denda, zahar-etxe eta negozio ezberdinetara bidaliko ditugu, langileak elkarrizketatu ditzaten. Bideo horiek haien instagrametako storietan zintzilikatzeko eskatuko diegu #HezkuntzaPlazara traola erabiliz.
- **Momiak.** Umeak momiaz mozorrotuko ditugu, komuneko papera erabiliz, elkar ukitzea, mugitzea eta jolastea oso mugatuta dutela salatzeke. Argazkiak atera eta sareetan zabalduko ditugu. "Ez dira momiak, umeak baizik. Mundua jolasaren bidez eta elkarrekin harremanetan ezagutu nahi dute".
- **Miren eta koronabirusa!** Lau ipuin irakurriko ditugu mikrofonotik. Ipuin bakoitzak koronabirusak Mirenen bizitza nola aldatu duen azalduko du. Lau ipuinetako lau Miren horiek,

ordea, pertsonai ezberdinak izango dira ipuin bakoitzean: lehenengoan Miren ikaslea izango da, bigarrenean irakasle, hirugarrenean guraso elkarteko ama eta laugarrenean eskolako garbitzaile. Miren ikaslearen ipuina ikasle batek idatzi eta irakurriko du, Miren irakaslearen irakasle batek...

- **Antzar joko erraldoia**, baina kasilla esanguratsuen izena aldatuz: "espetxea" beharrean "konfinamendua"; "zubitik zubira" beharrean "zaintza sareko erosketa bizilagunari"; "putzua" beharrean "PCR probaren emaitzaren zain"; "de oca a oca" beharrean "gelaz gela, hidrogela!"...
- **Begiradak interpretatzen**. Pelikuletara jolastuko gara baina musukoa jantzita eta arreta guztia begietan jarriz. Kide batek emozio bat adierazi beharko du bere begiradaren bitartez eta gainontzeko kideek emozio hori zein den asmatu beharko dute. Asmatzen duenak antzeztuko du hurrengo emozioa begiradaren bidez.
- **Lehendakari banintz**. Nerabe taldeak antolatuko ditugu. Talde bakoitzak "Koronabirusari aurre egiteko neurriak" zehaztu eta aurkeztu beharko ditu. Taldeen arteko eztabaida antolatuko dugu ondoren.

## Euskararen egoera salatzekeo

- **"Euskaraz bizi nahi dut!"** leloa klarionaz margotuko dugu lurrian, ahal dugun eta handien, ahalik eta kide gehienen artean. Inguruko etxeren batetik argazkiak aterako ditugu, prozesuaren adierazgarri izango direnak.
- **Euskarazko marrazki bizidunen marrazki erakusketa** antolatuko dugu. Ikasle bakoitzak euskarazko marrazki bizidun baten marrazkia egin beharko du eta lelo hau ipini: "Euskaraz bizi nahi dut Son Goku\* bezala!". [\*Bakoitzak bere marrazki bizidunaren izena jar dezala].

- **“Erdaraz egitera behartzen nau”.** Marrazki bizidun, bideojoko edota youtuber erdaldu-nen irudiak plazan eskegiko ditugu eta umeei pegatak gainean jartzeko eskatuko diegu. Pegata horietan mezu hau agertuko da: “erdaraz egitera behartzen nau”.
- **Euskara asanblada.** Eskolako euskara sustatzeko plangintzaren errebaso bilera antola-tuko dugu plazan. Estamentu guztietako kideak inplikatzeko saiatuko gara. Egoki ikusiz gero, megafonia erabiliko dugu. Zero-asanblada izatea da asmoa, aurrera begira jarrai-pen bilera gehiago egiteko.

## Oharrak

- **Elkarlana:** eguneko egitaraua estamentu guztien artean diseinatzen saiatuko gara.
- **Komunikazioa:** egindako ekimen ezberdinen argazkiak aterako ditugu, gero #Hezkun-tzaPlazara traolarekin sareratzeko. Kontuz! Ez sareratu haurren aurpegirik, gurasoen baimenik gabe.